

GIZARTE ONGIZATE ETA OSASUN PUBLIKOKO GIZARTE ZERBITZUGINTZAGATIKO TASAREN ZERGA ORDENANTZA ARAUPETZAILEA. 2019. URTEA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Udal honek, Lurralde historikoko Toki Ogasunen Foru Arau erregulatzaillearekin bat etorriz, Eranskinean jasotzen diren zerbitzugintzagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasak ezartzen eta eskatzen ditu, Ordenantza honek ezartzen duen eran, haiek honen barne daudelarik.
2. Artikulua .-Ordenantza hau udal mugarte osoan ezartzen da.

ZERGA EGITATEA

3. Artikulua.- Zerga egitatea Udal Administrazioak zerbitzu ematea edo jarduerak egitean datza, eskatu delako edo partikularren ekintzagatik edo ez egiteagatik zeharka eragin delako.

SUBJEKTU PASIBOA

4. Artikulua. -1.- Subjektu pasiboak dira, zergadunen kontzeptupean, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituzten eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean jasotzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, eta zerbitzu edo jarduera hauen onuradun edo kaltetuak direnak ere bai.
5. Artikulua.-Ordenantza honetan erregulatzeko diren tasak osasun publiko edo gizarte ongizate zerbitzu edo jarduera honen onuradunek ordaindu beharko dituzte derrigorrez.

SALBUESPEN ETA HOBARIAK

6. Artikulua.-Ordenantza honen Eranskinean jasotzen diren salbuespen eta hobariak baino gehiagorik ez da emango.

ZERGA OINARRIA

7. Artikulua.- Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza da zerga oinarria, dagokion tarifak ezartzen duen eran.

KUOTA

8. Artikulua.- Kuota aurreko artikulutik sortzen den oinarriari dagokion tarifa ezarriz zehaztuko da.

SORTZAPENA

9. Artikulua.- Tasa zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da

LIKIDAZIOA ETA SARRERA

10. Artikulua.- Udal Administrazioak kontzeptu bakoitzarik dagokion likidazioa egingo du, likidatutako diru kopurua dirutan sartuko delarik ondoko arauen arabera:

- a) Zerbitzuak edo jarduerak egitea bada, Udal Utxetan sarrera zuzeneko gordailu bidez, zerbitzua edo jarduerak egin baino lehen.
- b) Aurretiz gordailua uztea posible ez bada, zerbitzua edo jarduerak egitean, hauek egiten direnean, egitea beharrezko bada, dagokion faktura edo ordainagiria
- c) Urteroko zerbitzu edo jarduerak egitea bada, behin prezio publikoen matrikuletan sartuta, egutegiko urteetan.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta Eranskina 2000ko irailaren 29an, 2001eko irailaren 28an, 2003ko azaroaren 28an, 2004ko azaroaren 26an, 2005eko azaroaren 25eko, 2006ko abenduaren 22an, 2016ko apirilaren 27an, onetsi dira, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta argitaratzearen hurrengo egunean indarrean sartuko dira eta indarrean jarraituko dute bere aldarazpena edo indargabetzea erabaki arte.

TARIFA

Tasen tarifak, zerbitzua errendatzearen edo jarduerak egitearen, ondorengoak izango dira:

OSASUN PUBLIKOA

ANIMALIEN BILTZEA ETA TXAKUR-ZERBITZUA

Zerbitzuaren errondan edo udaltzainek, Ertzaintzak edo bizilagunek eskatuta animalia biltzea: 55,00 euro.

“Jabeen erkidegoek” alde pribatuetan katuak onartzea: 15,00 euro katu bakoitzeko.

Jabeak edo hark eskuordetutako pertsonak entregaturiko animalia onartzea. (Mikrotxipa jartzeko tasa gehituko zaio, entrega egiteko unean halakorik ez badu):

Txakurra: 140,00 euro
Katua: 80,00 euro

Udal Txakurtegian emandako egonaldiko egun bakoitzeko 12,00 euro.

Mikrotxipa jartzea. 45,00 euro.

Animaliak adopziorako lagatzea, Txakur Zerbitzuak txerto guztiak jarrita. Antzutzea, aukerakoa, berariaz baimendu beharko du animalia adoptatzen duen pertsonak.

Txakur antzutua adoptatzea 65,00 euro
Katu antzutua adoptatzea 35,00 euro

Animalien jabeek jakinaraztea. Burofax bidalketa 15,00 €

Arriskutsuak izan daitezkeen animalien lizentziak tramitatzea: 15,00 euro.

GIZARTE ZERBITZUAK

1. NAGUSIEN ETXEA.

-Kiropodia zerbitzua 7,80 euro

2. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA.

Tasaren kalkulua ondoren agertzen den formularen arabera egingo da:

$$\frac{\text{Urteko sarrerak}/12 - \text{G.G.D. hilea kide kop. arabera} \times 15}{100} = R$$

Hileko tasa = $R \times (0,50 + \frac{\text{Guztizko ordu kopurua Elkarbizitzako Unitate zerbitzuan hilean}}{100})$

3. BABESTUTAKO APARTAMENDUAK

Banako apartamentuen erabiltzaileei ezarri ahal zaien tasa, ondorengoa izango da:

- Bere kargua ezkontide gabeko pertsonentzat den Gutxienezko Pentsio Ez Kontributiboaren sarrera berdina edo txikiagoak dituzten pertsonak, haien sarreraren %8a ordainduko dute.

- Sarrera gehiago duten pertsonak haien sarreraren portzentaia bat ordainduko dute, gehituko dena, %8ari dagokionez puntu batez 30,05 euro bakoitzeko, erreferentzia bezala jarritako Pentsio Ez Kontributiboa gainditzen duten heinean.

Apartamentu bikoitzen erabiltzaileei ezarri ahal zaien tasa ondorengoa da:

- Gutxienezko Jubilazio Pentsioaren sarrera berdina edo txikiagoak dituzten pertsonak ezkontidea kargura haien sarreraren %6a ordainduko dute.

- Sarrera hodiagoak dituzten pertsonek haien sarreraren portzentaia bat ordainduko dute, zeintzuk gehituko baitira, %6ari dagokionez puntu batez 30,05 euro bakoitzeko, erreferentzia bezala jarritako Pentsioa gainditzen duten heinean.

Pertsona bik apartamentu bikoitz bat banatzen duten kasuan, arinago senidearteko harremanik izan gabe, banako kuota ezarriko zaie, bere gaineko %30 beherapena eginez.

IV .- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAREN KUDEAKETAKO ARAUAK

4.1 .- Sarreraren kalkuluak egiterakoan, eta baita Elkarbizitza Unitatearen kideen kopurua ezartzerakoan ere, holakotzat joko da, ezkontidea edo kide analogoa, beste ezkontidea eta emantzipatu gabeko adingabeko seme-alabak.

Errendatutako zerbitzua arreta pertsonalekoa bada, hurrena datozenak aditu behar dira:

- 1.- Ezkontideek pentsio bana badute, haien bien sarreretatik erdiak hartuko dira erreferentzian eta pertsona bakarraren G.G.D.a kontatuko da.

- 2.- Ezkontideek pentsio bakarra badute edo jasotzen badute, sarreretatik erdiak kontatuko dira halaber eta pertsona bakarraren G.G.D.a erabiliko.

4.2 .- Ordaindu beharreko Tasa zerbitzuaren zenbatekoaren arabera izango da, ezin duelarik horrela erabiltzailearen hileko sarreraren % 10a gainditu.

Sarrerak adituko dira hauek guztiok batutakoak, alegia, pentsioetatik, soldatetatik eta abarretik ekarritako errentak + higigarrien kapitala 18.030,36 euro baino gehiagokoa bada + edozein diru konturen korrituak + ohiko etxebizitzaz beste ondasun higiezinaren balio katastrala + alojeraren errenta, baldin balitz - etxebizitzaren alojeraren edo amortizazioaren gastuak

4.3 .- Sarreraren kalkuluak egiterakoan, ondorengo gutxipenak izango dira kontutan

a) %65eko elbarritua edo gehiagoko elbarritasunarekin, eta 65 urte edo gehiagoko pertsonak, haien ezintasun maila, GUTTMAN eskalaren arabera ezarritako MUTURREKO mailan bada, 120,20 euro hileko eta pertsonako. Elkarbizitza Unitate berean kontzeptu honegatik egingo den gehienezko gutxipena, 2.884,86 euro urtekoa izango da.

b) Ohiko etxebizitzaren alojeragaitik, gehienez urteko. 2.404,05 euro

c) Ohiko etxebizitzan inbertitutako kapitala eta interesak amortizatzeko, gehienez 2.404,05 euro urteko.

4.4 .- Horrela, Ondare Balorazioaren arabera, ezartzen da:

1.- 6010,12 euroko gutxipena ondoregetuta utzi, G.G.D.ren Araudiaren arabera.

2.- Ondasun higikorrek kontuan izango dira, salbu eta kapitalen interesak eta alokairuen errentak. Bi horiek sarreraren zati oso izango dira, lan etekin gisa, pentsio gisa, etab. Horrela kalkulatu den balioa denean 18.030,36 euro ulertuko da ez dagoela ondasun higikorren gutxipenak.

3.- Ohiko etxebizitza ondorio guztietarako salbuetsiko da. Gainerako ondasun higiezinak bizikidetzaren unitatearen sarrera gisa zenbatuko dira.

4.5.- E.L.Z.ren tasa kalkulatzeko aplikazio era nagusia ez da izango aplikaziozkoa ondorengo kasuetan:

* Gabezia sozio-ekonomiko larriak (monoparentalitateari kasu berezia eginez)

* Arazo psikosozial larriak

* Adingabeak arrisku egeran

* Buruko gaixotasun edo drogamenpekotasun arazo larriak.

Honelako egoeran egotea benetakotzea, Gizarte Langilearen arrazoizko informe batekin, kasuaren arduraduna dena eta Ongizate eta Osasun Publikoaren Batzorde Informatiboaren proposamenez, tasa kopuru sinboliko batera mugatu ahal izango du edo ordaintzeaz guztiz kanpo gelditu.

Minusbalio larriak dituzten 65 urtetik beherako pertsonen kasuan, hilabeteko sarreren %2a izango da tasa.